

Karraskiloen lorautsaren usaia

Koldo Ordozgoiti Juanenea

Adituak diotenez usaimena omen da gizakiok dugun oroitzapen primario eta iraunkorrenetakoa, hau da, oroitzapenaren alorrean gutxien landutako sena izan arren, usaimenaren bidez metatutako memoria gizakion burmuinen konexioen baitan hobekien gordetzen den, gehien irauten duen oroitzapen mota omen da. Hausnarketa hau idazterakoan holako usain-oroitzapen horietako batez jota nabil. Urte sasoi honetan, karraskiloak, artea eta karraskaren sendi txikiak, hesiak edo hobe esanda, heskaiak egiteko erabiltzen diren sastraka horiek, loretan dira. Berez, karraskiloek ez dute lorerik baina bai lorauts ugari. Eta polen horrek sortutako usaiak, eskola garai-ko azterketa sasoiarekin lotzen nau. Eskola bideko usaia, jolastoki edo patioko usaia, batzuetan “lager” edo kontzentrazio-esparru gisa irudikatu izan nuen eskola hartako hesia osatzen zuten sastraka haiek sortutakoa eta niri, behin betirako, eskola eta eskola-azterketa garaiarekin uztartua geratu zaidana.

Usain oroitzapen honek, aitzakia eman dit Errenteria eta eskola gaien arteko hala moduzko digresioa den honentzat. Ez da hau neure gaietako bat eta ez naiz aditua ez batean (Errenterian) zein bestean (hezkuntza gaietan). Hala ere, gure herrian hiru ikastetxek urte berean ehungarren urteurrenara iristeak, honen inguruan lau ideia idazteko aukera eman didate. Oso bitxia baita urte berean, hiru eskolek ehun urte betetzea. Are gehiago hiru eskola horiek Errenterian ikastetxe izena jaso zezaketen lehenak izan zirenean.

Hezkuntza ez da Errenterian Biteri herri-ekolarekin edo eta Corazonisten eta Hijas de la Cruz, fraide eta moja eskolekin sortu, baina aurten ehungarren urteurrenaren bete-

tzen duten hauek dira gure herrian sortutako lehen ikastetxeak. Errenteria aztertu duten historiagileek azaltzen duten moduan, dezente lehenago –gutxienez 1845 urtetik aurrera mutilentzat eta 1880ez gero neskentzat–, baziren herriak –udalak– ordaindutako eskolak. Litekeena da lehenago ere izatea herria –udala– zein elizarekin lotutako hala nolako eskolak, baina Errenteriako lehen ikastetxeak hiru hauek ditugu, Biteri lehen herri-ikastetxea, eskola publikoa, eta Corazonistak eta Hijas de la Cruz izan ziren, mutilentzako eta neskentzako, urrenez urren, lehen ikastetxe giristinoak.

Zer gertatu zen, bat-batean, urte baten buruan lehen hiru eskola moderno sortzeko gure herrian?.

Aldaketa handietan sartua zen Errenteria XX. mendearen hasiera hartan. Ez da inondik ere kasualitatea, 1903an, Biteri eskola irekitzearekin batera eta ikastetxe honen eraikin berean, Errenteriako lehen Industri Erakusketa egin izatea, gure herriari “Manchester txikia” izengoitia ezarri zion erakusketa famatu hura. Ordurako, Errenteria industriarekin sendo uztartutako herria genuen. XIX mendearen erdialdean gauzatu zen aldaketa hori eta industri iraultza, gurean, auzoan baino lehenago piztu zen. Hiribildu gisa, Oiartzun ibarreko buru eta bertan ekoiztutako burdinaren biltoki, aduana eta kaia izateko –hori baita hain zuzen, euskaraz, gure herriaren izen propioaren adierasortua, joan etorri askoren ondoren, errepi-deak hiribarnea zeharkatu –eta zatitua– ondoren, eta burdinbideak portuaren azken ubidea itsutu baino lehentxeago, Fabrika Handiarekin (1845) eta Matxingo lurmuturreko kaputxinoetako Asturianaren fundizioarekin (1859), ehungintza eta metalgintzarekin, hasi zuen industrializazioak bere

bidea gurean eta horrekin Erreteria, beste behin, eraldatu eta industri-gune bilakatu zen, ehun urtetik gora iraun zuen itxura eta izaera hartuz.

Bost mila lagunetik behera zituen XX. mende hasierako Erreteria hark eta ordurako hezkuntzak garrantzia hartua zuen. Industria-lanak trebezi batzuk eskatzen dizkio langileari. Nekazal giroan ez zen horrenbesteko arazo irakurtzen eta idazten ez jakitea, baina fabriketan lan egiteko minimo batzuk ezagutu behar ziren. Anekdotak izan arren, gure familia-kon historia txikia ekarri nahi nuke hau hobeto azaltzeko. Neure Goierriko sustrietan, eskolatzea gure aitona belaualdian gertatu zen eta erabaki horren hardura gure birraitona izan zen. Honek, ogia lortzeko baserriaz gain pio lanetan ibili behar izaten zuen gizonak, Norteko ferrokarrilaren Otsaurteko tunelen zabaltze lanetatik bi berrikuntza ekarri zituen baserrira, bata tresna berri bat: penduludun erlojua, lanera garaiz iritsi ahal izateko; bestea, ideia bat: eskolaren garrantzia. Hortik aurrera familian sendotutako zen beharra.

Gure birraitonak ez zuen eskolarik eta hori guztiz arrunta zen. Esaterako, bere semea, gure aitona jaio zen garaian, 1877an, Erreteria gizonen artean soilik %31k zekien irakurtzen eta idazten, emakumeen artean kopuru hori %20raino jaisten zen; urte berean, gizonen beste %8a inguru eta emakumeen ia %16a irakurtzeko gai zen. Hezkuntza udalaren eskuduntza zen, baina agerian geratzen denez, une horretan, oraindik orain, ez zen lehentasuna. XX. mende hasieran gizartea eta beharrezko aldaketak ziren. Ezta inondik kasualitatea 1903 izatea Erreteria kaleko mutikoen artean %100ko eskolaratzea lortu zen urtea. Une berean, neskatu kaletarren artean eskolaratzea ia

hiru laurdenetara iristen zen, kopuruak askoz ere urriagoak ziren baserriarren artean, mutikoen %63a eta neskatu ia erdia eskolaratuak baitzeuden.

Udalaz gain, ordurako agente gehiena galdua zuen Diputazioak hezkuntza eta eskola arazoak kezkatua zen. Bide horretatik eta Gipuzkoak izan duen filantroporik handienetako bati esker, Pedro Biteri arrasatearrari esker, sortu zen Erreterian lehen herri-ikastetxea. Pedro Biterik bere ondasunak eskolak eraiki eta abian jartzeko utzi zituen eta bere eragina Gipuzkoaren lau muturretara hedatu zen. Diruaz gain, Biteriren fundazioak irizpide garbi baten ondorio ziren, garai hartan irakaskuntzak zituen beharretara egokitzen ziren eta eredu arkitektoniko baten arabera eraiki ziren; horri esker, Erreteria Biteri eskola nolakoa zen jakin nahi duenak, argazki zaharretara jotzeaz gain, Hernanikoa ikustea besterik ez du. Pedro Biteriren izena herriko kale nagusian gorde dugu, nahiz berari esker sortutako eskolan galdu. Ez dakit zer esango lukeen Erreteria XX. mendean izan duen pertsona handienak, Koldo Mitxelena, izen aldaketa honi buruz, baina suma dezaket.

Susmoak susmo, hel gaitzen berriro harira. Orain ehun urte Erreterian sortu ziren beste bi ikastetxeak iparretik eta Frantziaren zurrumbilo politikoen ondorioz etorri zitzaizkigun. Mende hasiera hartan, Errepublikako agintean ziren gizonen hezkuntza Estatuaren eskuduntza eta monopolio zela erabaki zuten eta Frantzian eskola giritinoak, hots irakaskuntzara zuzendutako fraide eta mojen ikastetxeak ez zirela legezkoak agindu zuten. Horren ondorioz, irakaskuntzako erlijioso-ordenak legez kanpo utzi zituzten eta Errepublikatik atzerriratu beharretan aurkitu ziren. 1902an iritsi ziren Erreteriarra Sacre Coeur-eko fraideak. Ez zen pasa urte bete, Corazonistak bere lehen ikastetxea zabaltu zutenerako.

Errenteriakoa izan zen, atzerriratuak izan ondoren, Frantziatik kanpo sortu zuten lehen ikastetxea. Mende berrira egokitzen ari zen industri-hiri hartan lur ezin hobea aurkitu zuten. Beraien irakaskuntza eskaintza berritzailea zen gurean eta abegiz hartuak izan ziren bertako agintarien aldetik. Ez da kasualitatea herriko industria buruen laguntza eta babesaz izatea ikastetxea irekitzerakoan ezta ere eskolaren lehen kokapena Fabrika Handiaren baitan izatea, ehungailuen ondoan, Tejidos de Lino lantegiaren adar batean.

Hermanoek Errenteriako ikastetxea sortu zuten urtean, Lantegi Handiko langile gehienak emakumezkoak ziren eta oro har Errenteriako industri beharginen artean %40a emakumezkoa zen. Gizonezkoen artean irakaskuntza premiak handiak baziren, are eta handiagoak ziren emakumezkoen artean. Alde horretatik, eta ikusirik jorratu gabeko alorra, Corazonisten bide beretik heldu ziren Hijas de la Cruzeko ahizpak. Frantses eskolakoak hauek ere eta neskatuen heziketan zegoen hutsunea betetzera heldu zirenak.

Eragiketak eta irakurtzen eta idazten jakitea, edo gure zaharrek esango zuten moduan: lau erregelak erabiltzeko, leitu eta eskribitzeko gai izatea, hori zen garai batean eskolari eskatzen zitzaiona. Ordutik hona gauzak asko aldatu dira, egun eskolari, jakintza desberdinaz gain, hezkuntza beraz gain, beste gauza ugari eskatzen dizkiogu. Gehiegizko atrebentzia ez balitz, guraso gisa gure seme-alaben heziketan ditugun eginbeharrak ere eskolari lagatzen dizkiogula esatera ausartuko nintzateke. Horretaraino iritsi gabe, arestian aipatutako muin horretan, leitu eta eskribitu hartan, ezaguera eta askatasunaren hazia zegoen.

Ezaguna den moduan, gure hizkuntzako irakurri -leitu- hori, latinez *legere* zen eta aitzinean hitz horrek *hautatu*, *aukeratu* adiera zuen. Eta zinez egia da gure begiekin ikusten duguna baina haratago jo nahi duenak bere burua janztea erabaki duela. Eta irakurtzea haratago joateko gura hori da. Mundu eta ikuspegi berrietara zabaltzea, norberaren ezaguera besteen jakindurian eta idatzian oinarrituta, ikasiz, aberastea eta sakontzea. Hautatu eta aukeratzeko hautabidea, norbera eraikitzeke eta aske izateko aukera eta hori, hein batean, orduan bezala gaur egun ere, eskolaren bidetik datorkigu.

